


Euskadiko bizitegi-bazterketari buruzko VI. Jardunaldiak



2023ko urriaren 11n
Europa Biltzar Jauregia
VITORIA-GASTEIZ





Europa Biltzar Jauregia

Helbidea
Gasteiz hiribidea 85
01009 Vitoria-Gasteiz
GPS koordenatuak
42.85283, -2.68100
[Google map](#)

Aurkezpena

Bi urtean behin bezala, 2014az geroztik, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Bizitegi-Bazterketari buruzko Jardunaldiak antolatzen ditu, eta aurten seigarren edizioa beteko dute. Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-bazterkeriaren eta bizitegi-bazterkeriaren arloan lan egiten duten pertsona guztien hitzordu nagusietako bat da, etxegabetasuna prebenitzera eta abiaraztera bideratutako politikei buruz elkarrekin hausnartzeko.

Aurten, jardunaldiak urriaren 11n izango dira, Gasteizko Europa Jauregian, eta oinarrizko bi gune interesgarri jorratuko dira.

Alde batetik, 2022ko urrian EAEko 23 udalerritan egindako Bizitegi-Bazterketako Egoeran dauden Pertsonen VI. Kontaketaren behin betiko emaitzak aurkeztuko dira. Zenbaketan identifikatutako pertsonetatik, heren bat inguru, 'etxerik gabeko' pertsonak dira, hau da, kontaketa gauean kanpoan edo larrialdiko aterpetxe edo harrera zentro batean lo egin zutenak. Zenbaketaren datu nagusiak emateaz gain, emaitzak eta ondorioak mahai-inguru batean eztabaidatuko dituzte aditu-talde batek. Pertsona horiek egoera aztertuko dute hainbat ikuspuntutatik (generodesberdintasunak, migrazio-fenomenoaren eta etxerik gabeko fenomenoaren arteko erlazioa, profilen eta beharren aldaketa, etab.).

Bigarrenik, Jardunaldiak arreta jarriko du Bizitegi-Bazterketa Larriaren aurkako II. Euskal Estrategian, gaur egun prestatzen ari dena, eta haren ildo nagusiak Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politike-tako Sailak aurkeztuko ditu jardunaldian bertan.

Estrategia aurkeztu aurretik, mahai-ingurua egingo da. Bertan, Europako Batzordeak eta, EAEn esparruan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak bizitegi-bazterkeriaren arloan garatutako politikak planifikatzeko eta antolatzeko tresnak azalduko dira.

Atsedenaldiaren ondoren, arratsaldean, Bizitegi Bazterketa Larriaren aurkako II. Euskal Estrategiarak ezartzen dituen jarraibideei lotutako proiektu traktoreak aurkeztuko dira.



EGITARAUA

9:30-10:00

Ongietorri instituzionala

Nerea Melgosa. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailburua

10:00-11:30

Esperientzien mahaia: Bizitegi-bazterkeriaren aurkako politiken plangintzan egindako aurrerapenak

Etxegabetasunari aurre egiteko Europako Plataforma. MICHELLE CALANDRINO. Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Lantaldearen arduraduna. Gizarte Eskubideen eta Gizarteratzearen Unitatea. Enplegu, Gizarte Eskubide eta Gizarteratzearen Zuzendaritza Nagusia. Europako Batzordea.

Gizarteratzeko II. Elkarrekin Plana

Gipuzkoan. BELÉN LARRIÓN. Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendari Nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Etxerik gabeko Pertsonentzako Udal Plana.

JUAN IBARRECHE. Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkaria. Bilboko Udala.

Etxebizitza-politikak, Euskadin bizitegi-bazterkeriari aurrea hartzeko. MARIO YOLDI. Etxebizitzaren Plangintza Operatiboaren Zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

11:30-12:00

Atsedena

12:00-13:30

Mahai-ingurua: Bizitegi-bazterkeria larriar dauden pertsonen ezaugarriak eta beharrak, Euskadiko etxerik gabeko pertsonen zenbaketen datuen arabera

Raquel Sanz. SIIS.

Joseba Gaia. EAPN.

Xabier Legarreta. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Sonia Gorbeña. Bizitegi.

13:30-14:00

Txostena: Bizitegi Bazterketa Larriaren aurkako II. Euskal Estrategiaren oinarriko elementuak

Lide Amilibia. Gizarte Politiketako sailburuordea. Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.

14:00-15:00

Atsedena

15:00-17:00

Bizitegi Bazterketa Larriaren Aurkako II. Euskal Estrategiaren esparruan proiektu eragileak aurkeztea

17:00

Jardunaldiaren amaiera.



Euskadiko bizitegi-bazterketari buruzko VI. Jardunaldiak

<http://mintegia.siiis.net>



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA
GIZARTE POLITIKETAKO SARIA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO